# FRIDA CUMPLE UN AÑO

En esta ocasión no puedo comenzar de otra forma: GRACIAS por vuestro incondicional apoyo, Frida cumple un año.

Parece que fue ayer cuando nuestro primer número denunciaba en su portada: "NO SOMOS un producto publicitario". Desde ese número hasta este mismo que tienes en tus manos ha transcurrido un año cargado de acontecimientos.

Las cosas no han mejorado. Todavía existen mujeres que continúan siendo agredidas por sus parejas hasta la muerte; existe discriminación laboral por razones de sexo; el paro afecta en mayor proporción a las mujeres; continuamos con la doble jornada laboral, trabajo y familia; en muchos lugares del mundo las mujeres continúan siendo excluidas de la sanidad y la educación, ocultando sus cuerpos bajo túnicas y sus pies dentro de zapatillas silenciosas, que no emiten ruido al caminar para no molestar a los varones; más de cien mil mujeres en el mundo mueren por abortos clandestinos, por violencia sexual o por la extirpación de sus órganos genitales. A pesar de todo, continuamos escuchando: "¿Pero de qué os quejáis las mujeres, no deseabais la Igualdad...?"

La verdad es que muchas veces a la que escribe estas líneas se le quitan las ganas de seguir peleando, pero por otra parte, no debemos arrojar la toalla.

HEMOS entrado en un nuevo milenio, donde muchas cosas no han cambiado, pero donde también hemos empezado a tomar conciencia de que debemos unir nuestras fuerzas y trabajar conjuntamente para hacer que la sociedad camine hacia un futuro social más justo. Y además, no nos olvidemos, tenemos FRIDA.

Todas las personas que formamos parte del equipo de FRIDA queremos agradeceros vuestras opiniones y vuestro incondicional apoyo. Sin todos vosotras y vosotros, Frida no sería lo mismo.

Necesitamos seguir con vuestro apoyo y continuar recibiendo vuestras opiniones. Para ello hemos incluido en nuestra Web un BLOG donde nos gustaría que, a partir de ahora, podáis dirigir vuestras inquietudes, vuestras opiniones, vuestros deseos y hacer que Frida forme parte de cada una de vosotras y vosotros.

Agradecer igualmente a aquellas empresas e instituciones que gracias a sus inserciones publicitarias continúan haciendo realidad la existencia de FRIDA.

Agradecimientos.

MARTA ALARCÓN BETES
Coordinadora de Frida

# FRIDAK URTE BAT BETE DU

Oraingo honetan ezin bestela hasi: ESKERRIK ASKO zuen baldintzarik gabeko babesagatik, Fridak urte bat bete du.

Ematen du atzo izan zela gure lehenengo zenbakiak azalean honako hau salatu zuenean: "EZ GARA publizitate-produktu bat". Zenbaki hartatik eskuen artean daukazun honetara gertaeraz betetako urtebetea igaro da.

Gauzak ez dira hobetu. Badira oraindik euren bikotekideek hil arte erasotako emakumeak; bada sexuaren araberako lan-diskriminazioa; langabeziak eragin handiagoa du emakumeen artean; lanaldi bikoitzarekin jarraitzen dugu, lanean eta familian; munduko leku askotan emakumeak sanitatetik eta hezkuntzatik baztertuta daude oraindik, gorputza tunika azpian ezkutatu behar dute eta oinak zapatila isilen barruan, ibiltzean gizonak gogaituko duen zaratarik ez egiteko; munduko ehun mila emakume baino gehiago hiltzen dira ezkutuko abortuen, sexu-indarkeriaren edo sexu-organoak erauztearen ondorioz. Hala ere, oraindik ere honako hau entzun behar izaten dugu: "Baina zertaz kexatzen zarete emakumeok, ez zenuten Berdintasuna nahi...?"

Egia esan, lerro hauek idazten ditudan honek sarritan borrokari eusteko gogoa galtzen du, baina beste alde batetik, ez dugu etsi behar.

Milurteko berrian sartu GARA eta, gauza asko aldatu ez badira ere, kontzientzia hartu dugu geure indarrak batu eta elkarrekin lan egin behar dugula, gizartearen geroko errealitatea bidezkoagoa izan dadin. Eta gainera, ez dezagun ahaztu, FRIDA daukagu.

FRIDAko taldea osatzen dugun lagun guztiok eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen iritzi eta baldintzarik gabeko babesagatik. Zuek guztiok gabe, Frida ez litzateke gauza bera izango.

Zuen sostengua eta iritziak jasotzen jarraitzeko premia dugu. Horretarako, gure web orrian BLOG bat sortu dugu eta nahi genuke zuen kezkak, iritziak eta nahiak bertara bideratzea, hartara Frida zuetako bakoitzaren baitan egon dadin.

Orobat, eskerrak eman nahi dizkiegu publizitatea txertatzen duten enpresa eta erakundeei, haiei esker FRIDA errealitate bat delako.

Eskerrik asko.

MARTA ALARCÓN BETES
Frida aldizkariko koordinatzailea